

Zaldi ta guzti

Andaluzak Ermuan

Ermua bezalako herri kosmopolita bati dagokion legez, badira gure herrian, beren jaioterriko ohitura zein kulturaz elkarrekin gozatzeko, eta gainontzeko herrietakoei ezagutarazteko asmoz elkartzen diren pertsonak. Horrelako pertsonen osatutako taldea dugu Ermuko "Centro Cultural Andaluz" delakoa, zeinak, duela hilabete batzuk, San Pelaion, egoitza berria estreinatu duen, herri eta etheen estetikak, eraiki eta erabiltzen dituztenen nortasunaren islada izan daitezkeela argi eta garbi utziz.

Antza denez, azken hamarkadetako aurrerakuntzak ezarritako bizimoduak, gizabanakoa du helburu eta baliabide. Hau horrela izanik, herri bezala, nortasunaren bila edota babesean aritzen diren gizataldeek, beren herrietako folklorean eta kasu gehienetan, erlijioan oinarria duten ospakizunetan omen dute



Andaluzen karrozetan kolorea da nagusi.

iturburua. Ospakizun erlijioso-folkloriko hauen adibide garbia da maiatzeko "Centro Andaluz"-ak prestatu duen kultur egitaraua, "Gurutzearen Eguna" eta "Romeria del Rocio"-ren inguruan antolaturiko ekintzez osatua.

Gurutzearen Eguna

Maiatzero, loreen hilean, Andaluziako herri askotan

egiten den jaia da hau. Lorez egindako gurutze baten aurrean, jendeak astebururo honi egiten dizkion kantuz eta dantzaz osatutako eskaintzak izaten dira jaiaren ardatza. Ermuari dagokionez, gurutzea zentruko lehenengo solairuan izango da ikusgai, maiatzaren 13tik 22ra bitartean, eta ostiralero zentruko abesbatzak eskainiko dion "Salve"-az

aparte, asteburuetan ohizko dantza eta abestiez beteko da egitaraua.

"El Rocio"-ren erromeria

Dudarik gabe, talde honek urtean zehar antolatzen dituen ekintza kulturalen artean, hauxe dugu ezagunena Ermuko gainontzeko biztanleontzat. Aurreko urteetan bezala, Ongaraiko parkean ospatuko da aurten ere, bazkari batez, beste zenbait gauzen artean; eta nola ez, Ermuko kaleetan zehar, zaldi eta guzti, burutuko den "Karroza Martxa" izugarriarekin. Aurten maiatzaren 28 eta 29an ospatuko da, eta eguraldiak baimentzen badu, oso ondo pasatzea espero dute, euren sorterriko ohituretaz, Euskal Herrian, gozaten duten ermuar hauek. Ondo pasa.

Manuel Moreno

**DIETETIKA
ZENTROA**



Izelaieta, 10 eta
Merkatu Plazan
Tfnoak: 17 02 13
(Etxekoa) 17 01 52

HERBODIETETIKA
SENDABELARRAK



KOSMETIKA NATURALA
ERREGIMENENKO ELIKAGAIK

**TXALAPARTA
TABERNA**

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun



- LENGOAIA MUSIKALA
- PIANOA
- AKORDEOIA
- FLAUTA
- KLARINETEA
- SAXOFOIA
- TRONPETA
- TRIKITIXA
- KOROA